

# COLORBRAIN.

---

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresa funtzionazteko, hainbat baliabide behar ditugu gure lana abian jartzeko. Baliabide guztiak batzean lana aurrera eraman dezakegula espero dugu. Horretarako, hainbat baliabide izango ditugu:

- **Baliabide fisikoak:** Aurretik aipatu dugun bezala, Gasteizko Udalarekin harremanetan jarri gara Iparraldeko gizarte etxeko gela bat erabili al izateko. Nahiz eta orokorrean gure lana ez den modu presentzian egingo. Gela horretan, ordenagailua eta ipad bat edukiko dugu enpresako baliabide bezala. Horiekin lana egin al izateko. Ordenagailuarekin, talde terapiak edo banakako terapiak egiteko erabiliko dugu erabiltzaileen nahien arabera. Ipad-aren kasuan berriz, marrazkiak eta agenden kudeaketa egiteko baita diru sarrerak eta banku kontua antolatzeko erabiliko dugu. Hortaz aparte, enpresako telefonoa izango dugu larrialdi gisa edo bezeroekin hitz egiteko.
- **Baliabide intelektualak eta giza baliabideak:** Baliabide intelektualetan eta giza baliabideetan, psikologoek beraien jakinduria eta ikasitakoa praktikan jarriko dute. Informatikariak arazo baten aurrean dauzkan ezagutzak praktikan jarrita web guneko edo sareko arazoa konpontzeko gai izango da. Administrazioaren kasuan, orokorrean ordenaren bitartez enpresaren oinarria eutsiko du, haiek dena antolatu behar dutelako gure boston laguntzarekin. Marketing eta publizitatearen kasuan, bezeroaren arreta deitzeko eta gugana etortzeko post-ak, sare sozialak, folletoak etab sortu eta argitaratu ditugu. Hortaz aparte, ditugun produktuak aurrera eraman al izateko, diseñadore bat edukiko dugu marrazkiak eta sortuko ditugun produktuen diseñuak sortzeko. Amaitzeko, proiektu honen bost sortzaileek denetik pixkabat egingo dugu baina batik bat, erabiltzaileekin harremanetan jarriko gara eta talde terapiak egingo ditugu informazioa aurretik jakinda baita psikologo baten laguntzarekin.

- **Finantza-baliabideak:** Hasieran bakoitzak jarritako diru aurrezkiekin hasiko gara eta behin proiektua aurrera eramanda lortutako diruarekin hasiko gara zergak ordaintzen eta behar dena eskuratzen.